

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 94/2018 FORU DEKRETUA, uztailaren 11koa; 2018/2019an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko arautegia ezartzen duena. (Oker zuzenketa).

Akats bat antzeman dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren 94/2018 Foru Dekretuan, uztailaren 11koa, 2018ko uztailaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (zk. 140) argitaratuta-koan, Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren, 94/2018 FORU DEKRETUA, uztailaren 11koa; 2018/2019an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko arautegia ezartzen duena.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako legeak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak bere 2.3 artikuluan dio aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, kirola egiteko eskubidea behar bezala gauzatzea bermatuko dutela, eta horretarako burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango dituela oinarrian, besteak beste: goi-mailako kirola bideratzea eta sustatzea kirol federazioen parte-hartzearekin.

Kirolaren Euskal Lege horren 5.f artikulua ezartzen du lurralde historikoetako foru organoei dagokiela goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Lege horrek, 70.3 artikuluan, honela definitzen ditu etorkizun handiko kirolariak: lehiaketetan goi-maila lortu ez arren, horretarako gaitasuna erakusten duten kirolariak.

Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko 2014ko martxoaren 31ko jarduketa-protokoloarekin bat etorruta, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek osatutako batzorde misto batek kirolerako talentuak identifikatuko ditu etorkizun handiko kirolarien artean. Kirolerako talentutzat joko dira haien kirol ibilbideagatik edo kirol emaitzengatik kirol-lehiaketetan goi-maila lortzetik hurbil daudela egiaztatzen duten kirolariak.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua ikusita eta Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren



6ko 22/2018 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatu andreak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 11ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—2018/2019 denboraldian Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programaren arautegia onestea

2018/2019 denboraldian Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programaren arautegia onesten da.

1. oinarria.— Xedea

Foru dekretu honen xedea da 2018/2019 denboraldian Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programa arautzea.

2. oinarria.— Etorkizun handiko kirolariak identifikatzea

Bizkaiko Lurralde Historikoko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta 2018/2019ko Programan sartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak kirol merezimenduak neur-tuko ditu, eskatzaileek eurek aurkeztutako dokumentazioaren eta datuen argitan.

3. oinarria.— Baldintzak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2018/2019ko etorkizun handiko kirolari izaera aitortzea nahi duten kirolariek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kasuan kasuko Bizkaiko federazioak 2018. urterako edo 2018/2019 denboraldirako lizentzia izapidetuta izatea.
- b) 1997 eta 2003. urteen artean (biak barne) jaioak izatea.

Salbuespen gisa, urte horiek baino lehen edo ondoren jaiotako kirolariak sartu ahal izango dira, betiere kasuan kasuko federazioak behar bezala justifikatzen badu.

2. 2017ko irailetik eskabideak aurkezteko epea amaitu arte, gutxienez kirol-merezimendu hauetakoren bat lortu duten kirolarien eskabideak baino ez dira aztertuko:

- a) Bakarkako diziplinak:
 - 1) Titulu ofiziala ematen duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea.
 - 2) Estatu mailako 1., 2. edo 3. postua lortzea.
 - 3) Modalitateko estatuko federazioaren kontzentrazio edo teknifikazioaren parte hartu izana.
 - 4) Munduko txapelketa edo Olinpiar Jokoetan egotea ahalbidetzen duten probetan parte hartzea.
- b) Taldeko diziplinak:
 - 1) Kirolariaren adinari edo goragokoari dagokion estatuko mailarik goreneko lehiaketa erregularrean aritzen den talde bateko kide izatea.
 - 2) Estatuko selekzioko kide izatea.
- c) Kirol-merezimenduak aurrekoak ez diren kirol-lehiaketetan lortutako emaitzen bidez egiaztatze aukera duten diziplinen kasuan, foru dekretu honen 7. oinarrian ezarritako ebaluazio-batzordeak aztertuko du emaitza, kirolaren arloan daukan garrantzia kontuan hartuta. Garrantzi hori modalitate horretako Bizkaiko federazioaren txosten bidez egiaztatuko beharko da.
- d) Gainera, bakarkako diziplinetan zein taldeko diziplinetan honakoen inguruko informazioa aurkeztuko da:
 - 1) Titulu ofiziala ematen ez duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea.
 - 2) Estatu mailako errekorra haustea.

**4. oinarria. — Dokumentazioa eta epeak**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2018/2019ko etorkizun handiko kirolari izaera aitortzeko eskabidearekin batera 2017ko irailetik eskabideak aurkezteko epea amaitu arte lortutako kirol-merezimenduen zerrenda aurkeztu beharko da (EK1 inprimakian dago guztia).

Kirolari adingabeen eskabideak aitak, amak edo legezko ordezkariak aurkeztuko ditu.

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko irailaren 10etik 21era izango da, egun bi horiek barne.

2. Kirolari bakoitzeko EK1 inprimaki bakarra bete beharko da eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko da (Rekalde zumarkalea, 30, 1. solairua, Bilbo; ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez aurkezteko.

3. Erantsiko da, halaber:

- a) Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatzeko dokumentua, dagokion federazioak emana.
- b) NANaren kopia edo bestelako nortasun agiri baten kopia.
- c) Federazio lizentziaren kopia.

5. oinarria. — Hautaketa-irizpideak

Etorkizun handiko kirolarien zerrenda osatzeko, hautaketa-irizpide hauek erabiliko dira:

1. Kirol-emaitzak.
2. Kirol modalitatearen eragina eta etorkizunean izan dezakeen garapena.
3. Ebaluazio teknikoa.

6. oinarria. — Aholkularitza

Euskara eta Kultura Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, horretarako, foru webgunea erabili ahal da:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKirolak>

7. oinarria. — Ebaluazio-batzordea

1. Ebaluazio-batzorde bat eratuko da 2018/2019an etorkizun handiko kirolaritzat joko direnen zerrenda proposatzeko. Hautaketa-irizpideak aplikatuta osatuko du zerrenda hori.

Ebaluazio-batzorde hori hauek osatuko dute:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko buruak.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Federatuaren Ataleko buruak.
- c) Bizkaiko Kirol Federakundeen Elkarteak (ASFEDEBI) izendatutako pertsona batek.

Idazkaritza lanak Bizkaiko Foru Aldundian kirolaren arloko eskumenak dituen zerbitzuko teknikari batek egingo ditu.

Ebaluazio-batzordean Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz jasotzen diren arauak aplikatuko dira.

Ebaluazio-batzordeak laguntzaileak eta aholkulari espezialistak izendatu ahal izango ditu, eta haien laguntza eskatu, beharrezkotzat jotzen duenean. Pertsona horiek ematen zaizkien eginkizunak baino ez dituzte beteko.



Halaber, ebaluazio-batzordeak bi zerrenda proposatuko ditu etorkizun handiko kirolaritzat jotako pertsonekin (I. maila eta II. maila), kirol-emaitzak, kirol modalitatearen eragina, baita etorkizunean izan dezakeen garapena eta ebaluazio teknikoa kontuan hartuta. Pertsona horiek foru dekretu honen 10. oinarrian agertzen diren onurak izango dituzte.

2. Ebaluazio-batzordearen ustez 2018/2019an etorkizun handiko kirolaritzat jo beharrekoen zerrenda eta berauen I. maila eta II. maila arteko banaketa zein etorkizun handiko kirolaritzat jotzerik ez legokeenen zerrenda Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuari proposatuko zaizkio, behin betiko ebazpena eman dezan.

8. oinarria. — Ebazpena

1. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

2. Euskara eta Kulturako foru diputatuak emango du ebazpena, ebaluazio-batzordeak proposamena eginda. Epe hori eskabideari buruzko beren-beregiko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago beren-beregiko ebazpena eman beharko da.

3. Ebazpenaren foru agindua eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Posta ziurtatu bidez ere komunikatuko zaie.

Jakinarazpen horretan berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuari, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela, era berean zenbatutako bi (2) hilabete pasatu baino lehen.

9. oinarria. — Denbora-eremua

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolari izaera aitortu ondoren, izaera horri utsiko zaio 2019ko abenduaren 31ra arte.

10. oinarria. — Etorkizun handiko kirolaritzat jotzeak dakartzan onurak

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolaritzat jotako pertsonak programa batean sartuko dira eta ondoren aipatzen diren onurak izango dituzte, beren mailaren arabera. Onuren denborazko iraupena 2019ko abenduaren 31ra arte izango da, luzapena egon litekeelarik hurrengo deialdiaren arabera osatutako zerrenda onartu arte.

Etorkizun handiko kirolaritzat jotzearen merezimendua galdu liteke onuradunak, beti ere emateko ontzat hartu ziren baldintzak galtzen baditu Kasua heldu ezker, ebaluazio-batzordearen proposamena bitarte, Euskara eta Kultura diputatu foralaren agindu foral batez formalizatuko da merezimendu galera.

a) I. maila:

- 1) Kirol medikuntza azterketa.
- 2) Ekografia kardiakoa.
- 3) Analitika.
- 4) Kirol medikuntzako kontsulta.
- 5) Orientazio dietetikoa.
- 6) Bere kirol teknikariarekin batera kirolaria laguntzea, material eta euskarri teknikoak emanez kirol emaitzak hobetzeko.
- 7) Etengabeko formazioa, izaera praktikoduna, hileroko tailerren bidez.
- 8) Aholkularitza akademikoa kasuan kasuko hezkuntza alorrean eta goi mailako ikasketetarako sarbidea.

b) II. maila:

- 1) Etengabeko formazioa, izaera praktikoduna, hileroko tailerren bidez.
- 2) Aholkularitza akademikoa kasuan kasuko hezkuntza alorrean eta goi mailako ikasketetarako sarbidea.



Bizkaiko Foru Aldundiak, Kirol Zerbitzuaren bidez, aipatutako onuretz nor jabetu den jarraipena egingo du, sexuaren arabera desagregaturiko datuekin.

11. oinarria. — Betebeharrak

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolaritzat jo dituen pertsonen konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiari baimena emateko haien irudia erabil dezan, aitorpena indarrean dagoen bitartean. Inolako mugarik gabe erabili ahal izango du eta kirolariak ez du izango ordainsaririk jasotzeko eskubiderik. Bizkaiko Foru Aldundiak irudi hori era egokian erabiliko duela bermatzen du.

Halaber, pertsona horiek konpromisoa hartzen dute, aitorpena indarrean dagoen bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen sustapen-jardueretara joateko, hala eskatzen zaienean.

Artikulu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira etorkizun handiko kirolari izaera galduko da, ondorio guztietarako, eta, zehazki, foru dekretu honen 10. oinarrian ezarritako onurak galduko dira.

AZKEN XEDAPENAK**Amaierako Lehen Xedapena. — Arauak emateko gaikuntza**

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako Bigarren Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko uztailaren 11n.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



Kirol Zerbitzua / Servicio de Deportes Etokizun handiko kirolariak 2018 Deportistas promesas 2018	I. Inprimakia / Formulario I Eskabidea Eskabidea BFaren 94/ 2018 FD DF de DFB 94/ 2018	EK1
		Data / Fecha
		Erregistro zk./ Zk. de registro



ESKATZAILEAREN DATUAK ¹ / DATOS DE LA SOLICITANTE ¹					
IFZ / NIF		Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social ²			
Sexua / Sexo ³ <input type="checkbox"/> Gizona / Hombre <input type="checkbox"/> Emakumea / Mujer		Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza, etc.)			
Etxe zk. / Nº casa	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Atea / Puerta	Udalerrria / Municipio	P. K. / C. P.
Lurraldea / Territorio ⁴			Telefonoa / Teléfono	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax
Posta elektronikoa / Correo electrónico				Web orria / Página web	

ORDEZKARIAREN DATUAK ⁵ / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ⁵			
IFZ / NIF		Deiturak eta izena / Apellidos y nombre	
Eskatzailearekin harremana / Relación con la Solicitante			
Telefonoa / Teléfono	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico

¹ Eskatzailearen datuak: Eskabidea aurkezten duen pertsona ez bada proiektua egin behar duena, haren datuak adierazi behar dira "Ordezkararen datuak" atalean.

¹ Datos de la solicitante: En caso de que la persona que presenta la solicitud no coincida con la persona que desarrolla el proyecto, debe rellenar sus datos en "Datos de la persona representante".

² Izen-abizenak, pertsona fisiko bat bada, edo, izen soziala, erakunde bat bada.

² Nombre y apellidos en caso de que se trate de una persona física, o Razón Social en caso de una entidad.

³ Dagokion laukitxoak markatu baldin eta pertsona fisiko bat bada (estatistikak egiteko eskatzen da).

³ Marcar la cuadrícula correspondiente en caso de que se trate de una persona física (se solicita para fines estadísticos)

⁴ Lurralde Historikoa (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba) edo probintzia / autonomia-erkidegoa / estatua; kasuan-kasuan dagokiona.

⁴ Territorio Histórico (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba-Alava) o provincia / comunidad autónoma / estado, en su caso.

⁵ Ordezkarria dagoenean soilik bete behar da atal hau, eta adierazi behar da eskatzailearekin zein harreman daukan.

⁵ Solo debe rellenar este apartado si existe dicha figura, indicando su relación con la Solicitante.



		94/2018
Kirol merezimenduen egiaztatzea / Acreditación de méritos deportivos Kirol emaitzak 2017ko irailetik data honetara arte / Resultados deportivos a partir de septiembre de 2017 hasta la fecha		
BANAKAKO DIZIPLINAK / DISCIPLINAS INDIVIDUALES		
Kirolariaren izen-deiturak / Nombre y apellidos:	Kirol modalitatea eta diziplina / Modalidad y disciplina	
Kirolariaren jaiotza data / Fecha de nacimiento	Maila / Categoría	
Titulu ofiziala ematen duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea. <i>Participar en competición internacional donde se dirima título oficial.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Titulu ofiziala ematen EZ duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea. <i>Participar en competición internacional donde NO se dirima título oficial.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Estatu mailako errekorra haustea. <i>Batir récord estatal.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Estatu mailako 1., 2. edo 3. postua lortzea. <i>1er, 2º o 3er puesto del estado.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Kontzentrazioak edo teknifikazioak estatuko selekzioarekin. <i>Concentraciones o tecnificaciones con la selección estatal.</i>		
Data honetatik / Desde	Non / lugar:	Zein selekzio / Selección
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
Data honetara / Hasta		
		Estatukoa Estatal
		Bai / Sí
		Ez / No
ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA/DOCUMENTACION GENERAL ADJUNTADA (Dekretuaren 4.oinarriko 2. atala/Apartado 2 de la base 4º del Decreto).		
<input type="checkbox"/>	Kirol merezimenduak egiaztatze dokumentoa (dagokion federazioak emana)/Documento acreditativo de los méritos deportivos alegados (emitido por la federación correspondiente).	
<input type="checkbox"/>	Kirolariaren NANaren fotokopia edo beste noratsun agiri batena/Fotocopia del DNI de la persona deportista u otro documento de identidad.	
<input type="checkbox"/>	Federazio lizentziaren kopia/Copia de la licencia federativa.	



		94/2018
Kirol merezimenduen egiaztagiria / Acreditación de méritos deportivos Kirol emaitzak 2017ko irailetik data honetara arte / Resultados deportivos a partir de septiembre de 2017 hasta la fecha BINAKAKO, HIRUNAKAKO EDO ERRELEBOETAKO DIZIPLINAK / DISCIPLINAS DE PAREJAS, TRÍOS O RELEVOS		
Kirolariaren izen-deiturak / Nombre y apellidos:		Kirol modalitatea eta diziplina / Modalidad y disciplina
Kirolariaren jaiotza data / Fecha de nacimiento		Maila / Categoría
Titulu ofiziala ematen duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea. <i>Participar en competición internacional donde se dirima título oficial.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Titulu ofiziala ematen EZ duen nazioarteko lehiaketaren batean parte hartzea. <i>Participar en competición internacional donde NO se dirima título oficial.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Estatu mailako errekorra haustea. <i>Batir récord estatal.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Estatu mailako 1., 2. edo 3. postua lortzea. <i>1er, 2º o 3er puesto del estado.</i>		
Noiz / fecha:	Non / lugar:	Lehiaketaren izena / Competición:
		Postua / puesto:
		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
Kontzentrazioak edo teknifikazioak estatuko selekzioarekin. <i>Concentraciones o tecnificaciones con la selección estatal.</i>		
Data honetatik / Desde	Non / lugar:	Zein selekzio / Selección
Data honetara / Hasta		Goragoko mailan lortu da/ En categoría superior
		Bai / Sí
		Ez / No
		Estatukoa Estatal
ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA/DOCUMENTACION GENERAL ADJUNTADA (Dekretuaren 4.oinarriko 2. atala/Apartado 2 de la base 4º del Decreto).		
<input type="checkbox"/> Kirol merezimenduak egiaztatzeko dokumentoa (dagokion federazioak emana)/Documento acreditativo de los méritos deportivos alegados (emitido por la federación correspondiente).		
<input type="checkbox"/> Kirolariaren NANaren fotokopia edo beste noratsun agiri batena/Fotocopia del DNI de la persona deportista u otro documento de identidad.		
<input type="checkbox"/> Federazio lizentziaren kopia/Copia de la licencia federativa.		



		94/2018
--	--	---------

Kirol merezimenduen egiaztatzea / *Acreditación de méritos deportivos*
 Kirol emaitzak 2017ko irailetik data honetara arte / *Resultados deportivos a partir de septiembre de 2017 hasta la fecha*

TALDEKAKO DIZIPLINAK / *DISCIPLINAS DE EQUIPO*

Kirolariaren izen-deiturak / <i>Nombre y apellidos:</i>	Kirol modalitatea eta diziplina / <i>Modalidad y disciplina</i>				
Kirolariaren jaiotza data / <i>Fecha de nacimiento</i>	Maila / <i>Categoría</i>				
Estatuko gorengo mailako lehiaketa erregularrean ari den talde bateko partaide izatea adinari dagokion mailan edo goragokoan. <i>Ser integrante de un equipo que participe en competición regular de la máxima categoría estatal correspondiente a su edad, o superior.</i>					
Denboraldia / <i>Temporada:</i>	Taldea / <i>Equipo:</i>	Lehiaketaren izena / <i>Competición:</i>	Goragoko mailan / <i>En categoría superior</i>		
			<table border="1" style="width: 100%;"> <tr> <td style="width: 50%;">Bai / <i>Sí</i></td> <td style="width: 50%;">Ez / <i>No</i></td> </tr> </table>	Bai / <i>Sí</i>	Ez / <i>No</i>
Bai / <i>Sí</i>	Ez / <i>No</i>				
Kontzentrazioak edo teknifikazioak estatuko selekzioarekin. <i>Concentraciones o tecnificaciones con la selección estatal.</i>					
Data honetatik / <i>Desde</i>	Non / <i>lugar:</i>	Zein selekzio / <i>Selección</i>	Goragoko mailan lortu da/ <i>En categoría superior</i>		
Data honetara / <i>Hasta</i>		Estatukoa Estatal	<table border="1" style="width: 100%;"> <tr> <td style="width: 50%;">Bai / <i>Sí</i></td> <td style="width: 50%;">Ez / <i>No</i></td> </tr> </table>	Bai / <i>Sí</i>	Ez / <i>No</i>
Bai / <i>Sí</i>	Ez / <i>No</i>				

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA/DOCUMENTACION GENERAL ADJUNTADA (Dekretuaren 4.oinarriko 2. atala/Apartado 2 de la base 4º del Decreto).	
<input type="checkbox"/>	Kirol merezimenduak egiaztatzeko dokumentoa (dagokion federazioak emana). / <i>Documento acreditativo de los méritos deportivos alegados (emitido por la federación correspondiente).</i>
<input type="checkbox"/>	Kirolariaren NANaren fotokopia edo beste noratsun agiri batena. / <i>Fotocopia del DNI de la persona deportista u otro documento de identidad.</i>
<input type="checkbox"/>	Federazio lizentziaren kopia. / <i>Copia de la licencia federativa.</i>



		94/2018
DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA (DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGELAMENDUA [EB])/ INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS (REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS)		
Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Kirol Zerbitzua <i>Servicio de Deportes</i>	
Tratamenduaren kontaktatzeko <i>Contacto del responsable del tratamiento</i>	Errekalde zumarkalea 30 1, 48009 Bilbao <i>C/ Alameda Recalde, 30 1º, 48009 Bilbao</i>	
Datuak Babesteko ordezkaria <i>Contacto de la persona delegada de Protección de Datos</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Lege Aholkularitza, Informazio Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala – Kale Nagusia, 25– 48009 Bilbao. <i>Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos - Gran Vía, 25– 48009 Bilbao.</i> • e-mail: DPO@bizkaia.eus 	
Tratamenduaren helburua <i>Finalidad del tratamiento</i>	Tratamendu honen helburua da, interesdunek foru dekretu hau jarraituz aurkeztutako diru-laguntza eskaerak kudeatzea. <i>La finalidad del tratamiento es gestionar las solicitudes de subvención presentadas por las personas interesadas, al amparo de este Decreto Foral.</i>	
Tratamenduaren legitimazioa <i>Legitimación del tratamiento</i>	Interesdunaren esanbidezko adostasuna. Adostasuna edozein momentutan kentzeko eskubidea izango du, eta horrek ez du eraginik izango kendu aurreko adostasunean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean. <i>Consentimiento expreso de la persona interesada. Esta tendrá derecho a retirar su consentimiento en cualquier momento y esto no afectará a la licitud del tratamiento basada en el consentimiento previo a su retirada.</i>	
Datuen hartzaileak <i>Destinatarios de los datos</i>	Datu pertsonalak ez zaiei hirugarrenei lagako. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>	
Datuak gordetzeko epea <i>Conservación de los datos</i>	Datu pertsonalak tratatzeko denbora beharrezkoa. <i>Tiempo necesario para los fines del tratamiento de los datos personales.</i>	
Interesdunaren eskubideak <i>Derechos de la persona interesada</i>	Interesdunak bere datuak atzitu ahal izango ditu; eskatu datuak zuzentzea, ezabatzea edo haien tratamendua murriztea; edo datuen tratamenduari aurka egin. <i>La persona interesada podrá acceder a sus datos; solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento; y oponerse a este.</i> Eskubideok erabiltzeko, idazki bat bidaliko dio tratamenduaren arduradunari: <i>Para ejercerlos, enviará un escrito a la persona responsable del tratamiento:</i> <ul style="list-style-type: none"> • C/Alameda Recalde 30 -1 48009 Bilbao <i>Errekalde zumarkalea 30-1, 48009 Bilbao.</i> • 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 16.4 artikuluan ezarri duen edozein bidetatik. <i>A través de cualquiera de las formas establecidas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</i> 	

Onartzen dut neure datu pertsonalak tratatuak izatea.
Consiento el tratamiento de mis datos personales para la finalidad descrita anteriormente.

Sinadura / Firma:

Bilbo, 201.....(e)ko ren a Bilbao, a de de 201.....